

KULTUR ETXEKO BARNE ARAUDIA

Etxalarko Kultur Etxea, jabari eta zerbitzu publikoko udal ondasuna da, kultura bere dimentsio guztietan, bizi asoziatiboa, eta oro har komunitatearen eginkizunetan herritarren parte hartzea bultzatzea xede duena.

1. **Art.-** Etxalarko Kultur Etxea, Jauregieta 4, Kultur batzordearen egoitza da.
2. **Art.-** Kultur Etxea ez da Etxalarko talde bakar baten egoitza izanen ere, ez eta kultur batzordearen barnean daudenean ere.
3. **Art.-** Kultur Etxea erabiltzen duten talde eta pertsonak, Kultur Etxeko instalazioak hala ondasun hirigarri nola higiezinak zaintzeko konpromezua hartuko du.
4. **Art.-** Kultur Etxeko geletan ezin da erre, korridoretan izan ezik.
5. **Art.-** Ikasturte bakoitzaren hasieran, Kultur Etxea erabiltzen duen talde bakoitzak Kultur Etxeko gelak erabiltzeko jarduera eta ordutegien egutegia aurkeztuko du.
6. **Art.-** Talde eta kultur programazioaren urte bakoitzeko jardueren ordutegiak eta non egin diren zehaztu ondoren, Kultur Etxeak libre dituen gainerako guneak erabili ahal izateko idatziz baimena eskatu beharko da, beti kontuan hartuz nolako jarduera egin behar den eta nolako gela behar duen. Eskaera kultur dinamitzaileak Kultur Etxean duen bulegoan egingo da.
 - i. Jarduerak, bilerak.... Kultur Etxeko lehen edo bigarren solairuan egin behar baldin badira, baimenak bi egun lehenago eskatu beharko dira. Baimena kultur dinamitzaileak luzatuko du, beti ere gelak libre badaude.
7. **Art.-** Eskaerak onartuko dira, beti ere, burutu beharreko jarduerak Kultur Etxe barruko jardueren funtzionamendu normala ez badute eragozten.
8. **Art.-** Eraikina erabiltzeko lehentasunak egongo dira, jarduera, denbora, kultur batzordean parte hartzea, kultur xedek, herriarentzako interesa, etab, eta talde bakoitzaren egitaraua. Instalazioak dohain erabiliko dira, jarduerak Kultur Etxeko helburuekin bat egiten badute, herriko talde batek antolatu eta sarrerarik ez bada kobratzen. Herriko talde batek sarrera kobratzen badu eta aipatutako sarrera talde antolatzailearen gastuak estaltzeko erabiltzen bada ez du inolako alokairu kuota ordainduko. Gainerako kasuetan, jarduera antolatu duen taldeari tasa bat kobratuko zaio alokairu gisa.
9. **Art.-** Erakusgelari dagokionez, talde antolatzailearen batek jardueraren bat antolatzeko material teknikoa, soinua, argiak, apaingarriak, etab. beharko balitu, horiek eskaera egin duen taldeak jarri beharko ditu. Kultur Etxeko material kultur batzordeak programatutako ekintza eta zerbitzuetarako izango da bakar bakarrik.
10. **Art.-** Ikus-entzunezko bitartekoak udaleko langile edo erakunde antolatzaileak behar den bezala kreditatutako adituek bakarrik erabiliko dituzte bakarrik, eta alde zuzenetik Udalaren onespena beharko du.
11. **Art.-** Talde batek takilarekin ekitaldiak antolatzeko asmoa baldin badu horretarako dauden pertsonekin koordinatuko du.
12. **Art.-** Udala ez da publikoak eta jendeak oro har egin ditzakeen gauzen arduraduna izanen. Ardura bakar bakarrik talde antolatzailearena izango dira.
13. **Art.-** Eskuko egitarauak, kartelak eta bertzelako propaganda egiteagatik sortutako gastuak jardueren antolatzaileen kontura izango dira.
14. **Art.-** Egile eskubideak, hala daudenean, jarduera bakoitzaren antolatzaileak ordainduko dituzte.
15. **Art.-** Kultur Etxeko geletako armairu eta tresnak erabili ahal izateko idatziz eskatuko da kultur dinamitzailearen bulegoan, honek zehaztuko du eta horren berri eman Kultur batzordean.
16. **Art.-** Kultur Etxean egindako publizitatea duen jarduera guztiak Etxalarko

Udalaren izena emango dute erakunde laguntzaile gisa.

17. **Art.-** Erabilitako gelan suertatutako edozein kalte, jardueraren talde antolatzaileak ordainduko du.
18. **Art.-** Aurreko jardueri dagokien zehapenak Kultur Batzordeak aho batez hatutako erabakiaren bidez ezarriko dira.
19. **Art.-** Jarduera baten antolatzaileak eszenatokia, aulkiak, pianoak, etab, jarri behar baldin baditu, berau arduratuko da eszenatokia jarri eta kentzeaz. Ekitaldia bukatzen denean lekua aurkitu duen bezala utzi beharko du, hau da, garbi eta hutsik.
20. **Art.-** Kultur etxeako ordutegia Udalak zehaztuko du kultur dinamitzailearen bidez, langilegoaren prestutasuna eta erabiltzeko dauden eskaeren arabera.
21. **Art.-** Talde edo erakunde batek Kultur etxea itxita dagoenean erabili ahal izateko baimena jasoko balu, kultur dinamitzaileak eskaera egin duen talde erabiltzaileari Kultur etxea zabaldu eta itxitzeko giltzak eta behar diren argibideak emango dizkio eta eskaera egilea izanen da arduraduna Kultur etxean gerta daitekeenaz. Giltzak bulegoko ordutegitan jasoko dira kultur dinamitzailearen bulegoan eta lehen bai lehen itzuli beharko dira.

AZKEN ZEDAPENAK

- **Lehenengoa:** Araudi hau osorik edo zatiren batean aldatu ahal izateko beharrezkoa izanen da Kultur Batzordearen ez ohiko bilkura deitzea iragarpenean bertan aldatu edo kendu nahi diren artikulua edo artikulua aipatuko dira. Aldaketa hauek udalak ere onartu beharko ditu.
- **Bigarrena:** Araudi honetan aurreikusi ez diren kasuak Kultur Batzordeak erabakiko ditu.